



ONDARROAKO UDALA

Udal jarduerak egin edo zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak ezartzen duen ordenantza fiskalaren aldaketaren hasierako onarpena

Ikusita Udalbatzak 2013-07-29ean "Ondarroa alde historikoko trafikoa aratzatzeari buruzkoaren ordenantza" onartu zuela, eta bere III Kapituluari xedatzen dela sarrera baimentzeko txartel magnetikoak egitea, eta honek hasiera batean ematea doahinik izan arren, berriztapena ordaindu behar izango dela, eta kontuan izanik Itxas Aurre kalera sartzerako ere txartel bidez baimentzen dela, ezin bestekoa da txartel berriztapena gatik ordaindu beharrekoa arautzea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen bosgarren erabaki gehigarrian eta 22.2d) eta 49. Artikuluen arabera artikuluan xedatutakoaren arabera,

Udalbatza Osoak erabaki hau hartu du:

Lehenik: Udal jarduerak egin edo zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak ezartzen duen ordenantza fiskalaren honako aldaketak egitea:

A) 2. artikulua.- Kontzeptua eta Zerga-egitatea

2. Prezio publikoaren zerga-egitateak izango dira honako hauek:

- a) Antzerki, ikuskizun, ekitaldi eta erakusketetarako sarrerak.
- b) Gizarte-, kultura- eta aisialdi-jarduerak.
- c) Udalak antolatutako ikastaro, lantegi, jardunaldi, mintegi eta jardueretan izena ematea eta/edo parte hartzea.
- d) Udal-argitalpenak saltzea eta beste zerbitzu batzuk ematea udal-bulegoetan edo gainerako instalazioetan.
- e) Udal ondareen erabilera
- f) Herriko trafikoa arautzeko piboteak ezkutatzeko mekanismoa martxan ipintzeko txartelen berriztapena.

B) ERANSKINA



ONDARROAKO UDALA

TRAFIKO arautzeko ARLOA

6.EPIGRAFEA Herriko trafikoa arautzeko piboteak ezkutatzeko mekanismoa martxan ipintzeko txartel magnetikoen berriztapena → 33 €

Bigarrenik: Onetsitako behin-behineko akordioa jendaurrean erakusgai jartzea, erreklamazioetarako, **HOGEITAMAR EGUNEKO** epean, iragarkia Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratuz, behin-behineko akordioa behin-betikotzat hartuz erreklamaziorik egongo ez balitz, guzti hori, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.artikuluarekin bat etorrik.

Hirugarrenik: Behin-betiko akordioa, behin-behinekoa automatikoaki maila horretara igoa barne, eta aldaketaren testu osoa, Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratu beharko da.